

BERRIGARA

289. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, irailak 5

Iñaki Ibabe

Herrian 17 urte ostean

ALDASORO zapatadenda

Aprobetxa itzazu gure PREZIOAK.

Aurten 8. urtea betetzen dugu BERGARAKO ESPALOIAN.

Oinetakoak 34 zenbakitik hasita, poltsak eta larruzko jantziak!



**EUSKARA
GALDUZ GERO,
AKABO
EUSKAL HERRIA!**

Izena eman
zekⁿ



BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkorobereziabar

Maketazioa:

Enaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Haripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkorobereziabar

Alex Labaien

Komikiak:

Ignacio Rodríguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Enaki Azkarate

Banaketa:

Abantxangorri taldea

Tirada:

500 ale.

Primategia:

Agurtu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

TOMASA ZABALETA

San Joxepeko presidentea

- Noiz izango da San Joxepe jubilatuen elkarteak antolatutako Kultur hamabostaldia?

- Urriaren 7tik 15era bitartean egingo dugu eta aurretik, irailaren 26an, ihardunaldi horiek iragartzeko antolatutako kartel lehiaketara aurkeztutako lanen eta, era berean, elkarte kideek landutako eskulanen erakusketa zabalduko da.

- Zela sortu zen Kultur hamabostaldia antolatzeko ideia?

- Gure asmo nagusia gizarteari jubilatuen inguruko erreflesio bat egiteko gonbidapena luzatzea izan da eta hori dela eta Kultur hamabostaldiaren leloa "Erretiratuta egote-tik gizartean parte hartzera" izango da, uste dugulako oraindik ere ju-



bilatuok badaukagula zeregin bat gaurko gizartean. Hori dela eta hamabostaldian zehar hitzaldiak, mahai-inguruak eta beste hainbat ekitaldi antolatuko ditugu. Herri osoari ekitaldietan parte hartzeko gonbidapena egin nahi diogu, azken batean guztioi (gaurko jubilatuo zein etorkizunekoei) interesatzen zaigun gaia delako.

"Urrian egingo den Kultur hamabostaldian herriaren partaidetza lortu nahi dugu"

I T U R R I O N E T I K

1998-99 ikasturtean Osintxun eskola unitarioa jartzeko asmoa

Osintxuko Txurrumbilo Kultur Taldea 1998-99 ikasturtean Osintxun bi eta lau urte bitarteko eskola unitario bat zabaltzeko ahaleginetan ari da. Atzo bertan Osintxuko gurasoekin bilera bat egitekoa zen eta uztailan ere Anselmo Vega Angiozarko eskolako arduradunarekin bildu ziren ea eskola martxan jartzeko zein aukera dagoen aztertzeko. Badirudi gurasoen jarrera ona izan dela eta, lehen kalkuluen arabera, datorren ikasturtean 10 bat haur jasoko lituzke eskolak. Eskola unitarioa (publikoa eta adin ezberdineko haurrekin) lehengo eskolaren lokaletan kokatuko litzateke.

E S A N
D U T E

"Jesuitak ez dira beti ongietorriak izan Latinoamerikan. Nire ustez Estatu Batuetatik datozen aginduak eman dira gure inguruan kondaira beltz bat sortzeko eta hori dela eta gu baino eragin haundiagoko lana egiten duten beste ordenu batzuk dira eremu horretan. Zer dela eta leienda beltz hori? Nagusiki gure ordenuaren zeregina akzioan oinarritzen delako, ez delako soilik gizakien izpiritualtasunera mugatzen eta gizartearen sektore guztien parte hartzea bilatzen duelako. Hainbat gobernuri ez zaio hori gustatzen"

LUIS UGALDE
Jesuita
EL DIARIO VASCO

"Konfiantzarik gabe nagoenean ez naiz ondo kolokatzen, tantua ez galtzera joaten naiz eta horrela nekeza izaten da. Konfiantza hartzen dudanean, berriz, berehala hartzen dut tokia kantxan eta airez inolako arazorik gabe sartzen naiz. Momentu honetan horrela nago"

JOKIN ETXANIZ
Pilotaria
EL DIARIO VASCO

**SPEED 2**

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30

(Ikuslearen eguna).

**▼▼ Eluska Zabalo Monje**

gazte arrasatearraren margo erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan domekara arte. Eluskak 15 urte besterik ez ditu baina dagoeneko hainbat sari lortu ditu Euskal Herrian zehar izandako lehiaketetan. Nahikariko erakusketan hainbat herrietako txokoak erakusten dizkigu.

▼▼ Benito Cantero

argazkilariaren erakusketa ikusgai dago gaurtik irailaren 24ra bitartean Donostiako

Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen (San Juan kalea 27).

“Paisaiak” izenburupean, Benito Canterok 30 argazki aurkezten ditu. Jaiegunetan ezik, erakusketa zabalik izango da egunero arratsaldeko 5etatik 9etara.

**Zinea**

▼▼ Orain dela hiru urte estreinatuta zen lehen zatiaren arrakasta ikusirik, **Jan De Bont** zuzendariari bigarren zati honen errodaia agindu zioten Hollywooden. **Keanu Reeves** aurreko protagonistaren parte hartzea lortzerik izan ez dutenez, oraingo honetan **Jason Patric** dugu **Sandra Bullock**en bikotea. Biek kruzero baten bitzita lasaia lehertzeko asmoa duten gaizkileei aurre egin beharko diete...

Deiak

▼ **Odol ateraldia.** Bergarako Odol Emaleen Elkarteak dei egiten du datorren eguastenean, irailak 10, arratsaldeko sei terdietatik aurrera Seminarioko lokalean egingo den odol ateraldian parte hartzeko.

▼ **Gestorek** deituta, euskal presoen eskubideen aldeko gose grebaren 94. txanda egingo da datorren irailaren 20tik 27ra bitartean. Eskualde mailako gose greba honetan parte hartzeko Bergarako bost lagun behar dira. Interesatuak Arrano tabernara (76 02 54 telefono zenbakia) jo dezakete izena emateko.

▼ **Bedelkar** elkarteak datorren zapatuako (hilak 13) antolatutako herri afarirako (txekor jana) txartelak Bedelkarreko harategietan eskura daitezke.

Ogia

▼ **Domeka 7:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 5:** Estella.
- ▼ **Zapatua 6:** Camacho.
- ▼ **Domeka 7:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 8:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 9:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 10:** Camacho.
- ▼ **Eguena 11:** Estella.

MUJIKA  **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA

Bingen De Pedro

Nahikari tabernan erakutsiko ditu bere lanik berrienak

Bingen De Pedro bergarar margolariak bere azken lanak erakutsiko ditu Nahikari tabernan martitzenetik aurrera. De Pedrok objetoen itxura hartzen zuten koadroak alde batera laga eta expresionismoaren bidetik jo du oraingoan.

- Zela sortu da erakusketa egiteko aukera?

- Orain dela 7 urte egin nuen nire azken erakusketa Nahikarin eta askotan joaten naizenez, Bittor Pozak erakusketa berri bat egiteko eskeintza luzatu zidan. Oraingo hone-tan hasierako formato normalera itzuli naiz; azkenaldian espazio fisikoarekin apurtzen nuen, objetoen itxurako koadroak (formatoan, collageak erabiliaz, etabar) egiten nituen. Azken 6 hilabetee-tan pintatu ditudan haue-tan, berriz, pintura expresionista abstraktoa landu dut, formato txikian gehienak. Titulorik gabeko lanak dira eta koadro be-rean bakoitzak gauza ezberdin bat ikusi dezake.

- Zer deritzozu taberna batean erakusteari?

- Gustatzen zait tokia.



De Pedrok expresionismoaren bidetik jo du oraingoan.

Jendea ez doa espreski erakusketa ikustera, arte aretoetan gertatzen den moduan. Beste publiko mota bat da tabernakoa eta arte aretoak hotzagoak izaten dira. Dena den, erakusketak antolatzen dituen taberna bat izatean, horrek arte aretoetan izaten den publiko hori ere erakar dezake.

- Nola lantzen dituzu koadroak?

- Nahiz eta marrazki eta bozeto piloa daukadan, ez dut nire lana bozetoan oinarritzen, zuzenean mihisearen gainean hasten naiz lanean. Margolari espontaneo eta intuitiboa naizela esango nuke eta erakusketa hau egitea bestetan baino pin-

“Beste publiko mota bat da tabernakoa, arte aretoak hotzagoak izaten dira”

tura ariketa bat izan da niretzat.

- Rikardo Azkargorta eta Pello Alberdirekin batera erakutsi duzu sari. Estilo amankomun bat al duzue?

- Alderdi teknikoa eta formalari begiratuta ez daukagu gauza asko amankomunean baina arteari buruz daukagun kontzeptuari dagokionez beharbada bai. Orain ere elkarrekin lan kolektibo eta amankomun bat egiteko ideiarekin gabilta. Erakusketak antolatzea ez da batere erreza gaur egun; galeria pribatuetan erakutsi ondoren normalean bi urteko epea ematen dizute berriz erakusteko eta bestalde, instituzioen menpe daudenetan hasten ari den jendeari lehenetsuna ematen diote.

Bestalde, urrian, Abdon Juaristiren lanekin erakusketa bat egingo da Donostian eta joateko asmoa daukagu. Uste dut jendeak oraindik ez duela antzeman bere heriotzaren benetako dimentsioa. Nik lagun eta margolari bezala asko botatzen dut faltan, bere iritzia filtro moduko bat baitzen nire lanetarako.

Bolintx

O K I N D E G I A

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26



LASA

Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxe: 76 20 29

Deba ibaia eta autopista

Deba Ibaiaren saneamenduaren eta Eibar-Gasteiz autopistaren gaiak printzipioz loturarik edukirik ez arren, "Gatzaga-Landa proposamenaren aldeko taldeak" zenbait hausnarketa egin nahi du.

Urtero bezala bailarako talde ekologistek bikizkleta marxa antolatu zuten Deba Ibaiaren saneamendu integrala eskatuz. Ibai garbi eta bizi bat edukitzea edonork nahi duen helburua izanik oraindik ezer gutxi egin da, baina Europatik markatutako direktirik argiak direlarik 2000. urteko abendurako saneamendu planak egon behar dira. Diru publikoak oso murriztak diren garai honetan azpiegitura mailetan obra ikaragarri garestiak planteatzen dira, adibideak ez dira falta: ibaiaren saneamendu planak, Eibar-Gasteiz autopista, Abiadura Haundiko Trena, urtegiak...

Lehenengo bi azpiegitura adibideetan oinarrituz zera esango genuke:

- Gatzaga-Landa proposamenaren aldeko taldearen helburua garbia da: Eibar-Gasteiz autopista erraldoi honen aurka jardutea eta gure bailarako errepideak eta barne trafikoa herriarrengan sortzen dituzten arazoak eta kezak konpontzen saiatzea. Zentzu honetan gure planteamendua garbia da, gure bailarako errepideak goitik behera berrituz behar dira, hobekuntza sakon honekin konponduko da gure ustetan, barne trafikoaren arazoa.

Autopistaren aurka alternatiba zehatz bat planteatzen dugu: Leintz-Gatzaga/Landako biztanleek landutako proposamena eta bere xedea, hori da: hobekuntza sakonak egitea. Autopista dirugaltze izugarria da, 100.000 milioi pezetako aurrekontua du (bukatu orduko 2 edo 3 aldiz gehiago ez bada), kilometroa 2.000 milioi pezeta baino gehiago kostatuko da, metroa 2 milioi baino gehiago.

Honen aurrean guk proposatzen dugun alternatiba 12.450 milioi pezetakoa da.

- Deba ibaiaren saneamendu plana burutzeko aurrekontua 13.930 milioikoa da. Beraz, gure proposamena eta saneamendu planaren aurrekontuak gehituz gero 26.380 milioiko diru kopurua betetzen du.

30.000 milioi baino gutxiagorekin Deba ibaia garbia eta bizia edukiko genuke eta gure bailarako errepide eta trafikoa guztiak konponduko liriteke. Eta gainera 70.000 milioi aurreratuko genituzke, Bilbo-Behobia autopistaren peajea 2003. urtean liberalizatuko litzateke, eta gure bailarak ez luke autopista erraldoi hauen eraginik jasango. Eibar-gasteiz autopista: 100.000 milioi. Leintz-Gatzaga/Landa proposamena: 12.450 milioi. Deba ibaiaren saneamendu plana: 13.930 milioi. Nork berak aukeratzea dauka!

GATZAGA/LANDA PROPOSAMENAREN ALDEKO TALDEA

Euskara beherapenetan

Abuztuaren 26ko goizean Bergarako Eroskira joan gara erosketak egitera. Obrak egin eta gaur zabaldu dute, haunditu eta birmoldatu, zerbitzu gehiagorekin. Halako egun berezian herriarrei harrera gozoa egin behar zaienez, erosleei pastaxoak eskaintzen dihardute. Megafoniatik, berriz, halako eta halako sailetan beherapenak ditugula esaten digu emakume ahots batek eta irailen sorpresa haundiagoak eskainiko dizkigutela oraindik.

Ez da niretzat sorpresa handia izan baina benetako beherapenak euskararen kasuan eskaintzen ditu Bergarako Eroski honek: megafoniatik mezuak gaztelania hutsez, ia idatzi guztiak erdaraz hutsez, eta euskaraz eta erdaraz dauden mezu apurretan ere erdarazkoa euskarazkoaren gainean.

Orain dela urte pare bat Kataluniara eginda bisita batean ikusitakoa etorri zait burura:

Consum batetik etxeetara buzoneatutako publizitate guztia katalan hutsez. Norbaitek esango du "klaro baina Katalunian denek ulertzen dute katalana". Egia da hori neurri batean, baina kontua ez da ulertzea edo ez ulertzea; Katalunian ere gehiagok ulertzen dute gaztelania katalana baino baina, hala ere, Eroskiren propaganda katalan hutsez zegoen. Horrek katalanaren aldeko aukerak bat adierazten du, sentsibilitate bat.

Bergaran ere "Postreak", "Yogur desnatatutak", edozeinek ulertuko litzuzke baina "Postreak", "Yogures desnatados/Yogur desnatatutak" jartzen du, lehenengo gaztelaniaz eta gero euskaraz. Ez da, beraz, kontua ulertzea edo ez ulertzea; sentsibilitate kontua da. Eta Bergarako Eroskin hori falta da: euskara, agertzen den apurretan, bigarren mailan jartzen da aurpegia gaztelazko baino ez.

Ez dut eskatzen dena euskara hutsez egitea. Katalunian agertzen den sentsibilitatea herriarrei ere agertzea eskatzen dut: asko eskatzea da alda megafoniatik mezuak lehenengo euskaraz eskatzea, errotuluetan euskarari lehentasuna ematea edo eskuz idazten diren orriak euskaraz ere idaztea? Sentsibilitate apur bat behar da, besterik ez baina Bergarako Eroskin falta da. Katalunian joan beharrik barik, Arrasateko Hiperrean asko egoera hobea dago kontu horretan eta hara euskaraz ez dakien askoz jende gehiago joango da Bergarakora baino.

Horren ardura duenak berak jakingo du zergatik den hala. Bergarako Eroskiko bezeroek eskertuko genuke azalpen bat ematea.

A.M.G. (NAN: 16.275.010)

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

HILDAKOAK

- A. Kortabarria Azkarate-Askasua
Uztailak 20, 79 urte
- Bidal Kareaga Garcia
Uztailak 22, 55 urte
- Benita Gallastegi Gabilondo
Uztailak 28, 92 urte
- Anastasia Altolagirre Garai
Uztailak 28, 87 urte
- D. Azkarate-Askasua Larrañaga
Abuztuak 7, 75 urte
- Katalina Lizartza Arozena
Abuztuak 9, 80 urte
- Jose Maria Unamuno Kerejeta
Abuztuak 12, 68 urte
- Lorenzo Urriolabeltia Iurrebaso
Abuztuak 14, 31 urte
- Pilar Larrañaga Bollnaga
Abuztuak 22, 69 urte
- Jesus Perez Calleja
Abuztuak 23, 70 urte
- Josefa Barrutia Laskurain
Abuztuak 24, 84 urte
- Elvira Sentroman Gomez
Abuztuak 25, 65 urte
- Gregorio Lamarain Iturriaga
Abuztuak 27, 77 urte
- Ignacia Iribekampus Urkiola
Abuztuak 29, 64 urte
- Juan Zuazolaizgorraga Goenaga
Irailak 1, 79 urte

JAIOTAKOAK

- Uztailan
- Jesus Maria Prado Villolada. 15
- Martxel Garai Larrañaga. 16
- Aritz Rodrigo Unamuno. 18
- Maddi Garcia Irazola. 19
- Iñaki Kortabarria Etxeberria. 20
- Joan Rodriguez Castellano. 20
- Garazi Zubizarreta Garitano. 31
- Abuztuan
- Gorka Fernandez Fernandez. 1
- Jone Landa Hervas. 5
- Jon Barragan Guridi. 5
- Joseba Zengotita Alblsua. 6
- Mikel Soto Lopez. 11
- Garazi Bengoa Garate. 11
- Ander Foo Martin. 22
- Asier Calvo Linzoain. 24
- Ainhoa Agirrezabal Ostolaza. 26

Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak aztergai

“Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak” izenburuko bildumaren lehen liburua, “Ehuna, linua eta artilea” izenekoa, datorren eguakitzean aurkeztuko da Udaletxeko Pleno Aretoan. Liburua Jaione Isazelaia Aranzadi Ikastolako irakasleak idatzi du.

Begarako Udalak eta UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak lexiko berezia jasotzeko 1993ko uztailan egindako hitzarmenaren lehen fruitua da datorren eguakitzean aurkeztuko den liburua. Ondoren, Amaia Olañetak eta Argiñe Urkiolak egindako “Txondorrek, Karobiak, Elurzuloak”; Anaje Narbaizaren “Zura. Arotzak eta Etxegileak”, eta Iñaki Arana eta Lide Oregik egindako “Burdina. Errementariak eta perratzaileak” lanak argitaratuko dira.



Ehuna, linua eta artileari buruzko liburuan agertzen den irudietako bat.

Lexiko berezia jasotzeko bilketa-lanari galduta edo galtzeaz dauden langintza zaharretatik hasia erabaki zen eta bildumaren lau ataletan, lau alor ezberdin lantzen dira. Bilduma-lan honen zuzendaria Juan Martin Elexpuru izan da.

Jaione Isazelaia idatzitako liburuan, ehuna, linua eta artileari buruzko

sarrera historikoa, langintza bakoitzaren teknika ezberdinak eta eskualdean teknika hauek landu izan dituztenei egindako elkarriketen transkribaketa jasotzen dira besteak beste.

Liburuaren aurkezpean Juan Martin Elexpuru proiektuaren zuzendaria, Miren Azkarate euskaltzaina eta aholkulari taldekoa eta Victoriano Gallastegi alkatea izango dira, liburuaren egileekin batera.

Bestalde, honekin batera, harigintzari buruzko erakusketa zabalduko da Udaletxeko Pleno Aretoan datorren eguakitzean. Oartzungo Goruzaleak taldeak prestatutako erakusketan haria lantzeko tresna zaharrak egongo dira ikusgai.

Kurtso hasiera Aranzadi Ikastolan

Aranzadi Ikastolan ikasturtearen hasiera era honetan egingo da: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzakoak irailaren 17an hasiko dira goizeko ordutegiarekin eta 22tik aurrera, goiz eta arratsalde; DBHko lehen, bigarren eta hirugarren mailakoek, irailaren 12an goizeko 11etan aurkezpena izango dute eta 17an 08:45etan klaseak hasiko dituzte; BBB, LOGSE eta UBikoek irailaren 24ean, goizeko 11etan, aurkezpena eta hurrengo egunean klaseak hasiko dituzte.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55

Eibar-Gasteiz autopista

Hil bukaerara arte Eibar-Gasteiz autopistari buruzko plano orokorrak ikusgai daude Udaletxeko lehenengo solairuan 08:00etatik 14:00etara. Bestalde, Bergararik pasatzen den zatiari buruzko proiektu osoak bulego teknikoan azter daitezke.

Astebukaeretakoko begiraleak

Astebukaeretan Gartzela Zaharrea begirale gisa lan egiteko jendea hartu nahi du Jardunek. Interesa dutenek izena eman eta curriculum bidali beharko dute Jardunera edo Gartzela zaharrera irailaren 12a baino lehen. Informazio gehiago 76 36 61 telefonoan.

Aritzeta ren entsaioak

Aritzeta abesbatzako kideei jakinarazten zaie entsaioak hasi dituztela dagoeneko. Astelehen eta eguastenetan gaueko bederatzietan Zabalotegiko aretoan izaten dira entsaioak. Puntualitatea eskatu da.

BI Pertxakideren aldeko meza

Uztailean hil ziren Bidal Kareaga eta Alfonso Larrañaga Pertxako bazkideen aldeko meza izango da domeka honetan goizeko 11etan Elosuko San Andres elizan.

Matrikula zabalik Ipintzan

Ipintza institutuan matrikula egiteko epea zabalik dago HSAOL (LOGSE) lehenengo eta bigarren mailakoentzako eta BBB 2. mailakoentzako. Idazkaritza astelehenetik eguakitzera goizeko 9etatik 13:00etara izango da zabalik.



Beheko solairuan, superra jarriko den tokian, sapaia egin dute dagoeneko.

Oxirondoko azokan Super BM bat jartzeko obrak hasi dira

Astebukaeretakoko saltzaileak kanpoaldean kokatuko dira

Abuztuan hasi ziren Oxirondoko azokan supermerkatua jartzeko obrak. Udalak antolatutako substarta Unialco enpresa bakarrik aurkeztu da eta honebestez 25 urterako supermerkatua jartzeko aukera izango du. Unialcok Super BM superra jarriko du azokaren beheko solairuan, normalean baserritarak eta astebukeretan tokian-tokiko saltzaileak egoten diren tokian. Unialcok 10.125.000 pezeta ordaindu beharko dizkio Udalari eta 25 urtez azokako beheko solairua okupatu ahal izango du, epe horren ondoren beste 15 urterako kontratua luzatzeko aukera izango duelarik. Bestalde, Udal tasak ordaindu beharko ditu okupatuko dituen 800 metro karratuen ordainetan. Horrez gain, superra jartzeko

obra guztiak eta azoka egokitzeko beste lan batzuk Unialcoren kontu izango dira.

Dagoeneko beheko solairuan sapaia jarri dute eta honen gainean, azokako postu fijoak dauden solairu berean, kokatuko dira baserritarak eta astebukaeretakoko saltzaileak; obrak dirauten bitartean, baina kanpoaldean, aparkamentua dagoen tokian kokatuko dira hauek. Hori dela eta, zapatu goizetan, 06:00etatik, 14:00ak bitartean aparkalekua libre egon beharko da. Ordutegi hau irailan zehar errespetatu beharko da, urrirako superreko obrak amaituta egotea espero baita.

Beraz, superra urrian zehar zabalitzeko itzaropena dute Unialcokok. Bertan Bergaran errolatuta dauden langileek lan egin beharko dute.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

EHE taldeko sei kidek eten egin zuten euren kontrako epaiketa

EHE taldeko sei kidek eten egin zuten euren kontrako epaiketa joan zen martitzenean Bergarako epaitegian. Seirak joan zen martxoan Bergarako epaitegian gaztelaniaz egiten ari ziren epaiketa bat eten egin zuten eta horregatik izan behar ziren epaituak joan zen martitzenean. Epaiketa goizeko 10ak aldera hasi zen eta epaileak akusatuetariko bati aulkitik altxa zedin eskatu zionean, eurentako bat zutitu eta protestaka hasi zen eta besteek pankartak zabaldu zituzten. Salan bildutakoak, berriz, txaloka eta "Euskal Herrian Euskaraz" oihukatzen hasi ziren. Une horretan, epailearen aginduari jarraituz, akusatuak atxilotu egin zituzten ertzainek. Eguerdirako guztiak aske geratu ziren. Martitzenean epaitzen ari zirenak falta arinak zi-

ren, baina epaiketa eten eta ertzainak atxilotu ondoren, beste prozesu judizial bati aurre egin beharko diote sei gazteek. Autoritatearen kontrako desobedientzia larria leporatuko diete oraingoan.

Sei gazteak epaitzen ari ziren



bitartean, Epaitegiaren kanpoaldean bildurik zeuden 50 bat lagunek euren elkertasuna adierazi zieten epaituei "Euskaldunontzat ez dago justiziarik" zioen pankarta baten atzean.

San Martinetako bertso jaialdirako sarrerak salgai

Jardunek San Martinetan antolatuko duen bertso jaialdirako sarrerak salgai daude Etxeparen, Pol-Polen, Kortazarren eta Jardunen 800 pezetan. Jaialdia zapatuan, hilak 13, izango da Novedades aretoan gaueko 10:30etan eta Ainhua Agirreazaldegi, Euzkitze, Mañukorta, Angel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua arituko dira bertsoetan eta Joserra Gartzia gai jartzaile. Bestalde, aurten nobedadeak izango dira, Landa aita semeak trikitilariak eta Oihulari Klownen bertso-klownak ere izango baitira. Sarrerak jaialdi egunean bertan Novedadesen erosiz gero 1.000 pezeta ordaindu beharko da. Bestalde, aurten ere Bedelkarreko harakinek antolatutako odolkien dastaketa izango da zapatu goizean barazki, lora, fruita eta gazten ferian eta herri afarirako txekorra erreko da burduntzian. Gauean, berriz, Alaitz eta Maiderrek alaitutako erromeria izango da San Martin plazan.

Musika

Eskolaren oharra

Solfeo, piano eta akordeoi azterketak astelehenean goizeko 10:30etan izango dira. Bestalde, instrumentu ikasketen orduak hartzeko datorren egunean 10:30etan Musika Eskolatik pasa beharko da.

Zozketak

Osintxuko jai batzordeak Kofraixetarako antolatutako zozketa, Mallorcara bidaiari, 4.254 zorbakiari egokitu zaio. Bestalde, Biko bokategiak zozketatu duen mini katea 0420 zorbakiari egokitu zaio. Zorbakiaren jabeak domekara arte dauka saria jasotzeko epea. Agertuko ez balitz honako hauek dira ordezkotako zorbakiak: 0902 eta 0816.

Donostiako

estropadak ikustera

Irailaren 14an Donostiako estropadak ikustera joateko autobusa antolatu du San Joxepe jubilatuen elkarteak. Irteera goizeko 9etan bus geltokitik egingo da eta estropaden ostean bazkaria izango da (paella, gisadua, flana izozkiarekin eta kafea). Prezioa 2.000 pezetakoa da eta izen-ematea lehen bait lehen egin behar da Jubilatuetan.

Helduen Heziketa

Eskolaren oharra

Bergarako Helduen Heziketa Eskolak jakinarazten du datorren ikasturterako eta maila guztietan matrikula egiteko epea zabalik dagoela. Interesa dutenek Irizar Jauregiko bigarren pisutik pasa edo 76 44 52 telefonora deitu beharko dute.

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



gizon emakume

Barrenkale, 35 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Loteriak 200 milioi inguru banatu zituen abuztuaren 9an Bergaran

Lurrikara txiki batek bergararrak esnatu zituen abuztuaren 30ean

Bilbotar gazte baten gorpua agertu zen Deba ibaian abuztuaren 14ean

Lapurreta dexente izan dira herriko hainbat etxetan eta denda eta tabernetan

Ustekabeak abuztuan

Tenperatura altuak izan ditugu aurten

Abuztuan normalean ez da kontatzeko gauza azpimarragarri egoten, baina aurten ustekaberen bat edo beste izan dugu: loteria herrira tokatu da, lurrikara bat izan dugu eta bilbotar gazte baten gorpua agertu zen errekan. Abuztu bero samarra izan dugu, sargori egin du eta humedade tasa altua. Bestalde, Iñaki Ibabe preso abuztuan Langraitzetik irten da.

Uztaila fresko samarra eta nahiko euritsua izan bazen ere, abuztuan bero egin du, sargori, eta humedade tasa altua izan dugu. Tenperaturari dagokionez, abuztuko batzbestekoa 22,5 gradutakoa izan da, normalean egiten duena baino bi gradu gehiago (iazko batzbestekoa 19 gradutakoa izan zen). Hilaren 18tik 24rako astean, bestalde, 25,6 gradutakoa izan zen batzbestekoa. Oso altua. Tenperaturarik altuenak hilaren 14 eta 23an (36 gradutaraino heldu zen termometroa) eta 24an (35 gradu) izan genituen. Bestalde, abuztuko 15 egunetan egin zuten euria eta abuztu osoan 76 litro metro karratuko jaso ziren (iazko abuztuan 21 egunetan



Kotxe zaharren rallyeak ikusmin handia sortarazi zuen herritarren artean abuztu erdialdean.

egin zuten euria eta 101 litro jaso ziren metro karratuko). Datu haiek guztiak Narbaizaboluko Luis Mari Agirrek eman dizkigu.

Loteria Bergarara

Abuztuaren 9ko loteriaren zozketako bigarren saria, 200 milioi pezeta, Bergarara etorri zen. 52.726 zenbakiaren bi serie oso Osintxuko Txurigo tabernan eta Peñalban saldu ziren. Sariaren zatirik haundiena osintxuarraren artean banatu bazen ere, bergarar, oñatiar edota plazentziar askori ere tokatu zitzaion zer-

bait, gehienei bi milioi edo milioi bat pezeta. Roman Agirrezabalek, Txurigo jabeak, 72 dezimo saldu zituen; beste batzuk Peñalban saldu ziren.

Lapurretak

Opor garaian, jendea kanpora joaten dela eta, herriko etxe asko hutsik geratzen dira. Hori dela eta lapurretak ugartu egiten dira. Udaltzaingotan emandako datuen arabera, aurten ere lapurretak izan dira hainbat etxetan, Bolu tabernan eta Boluko fruitadendan. Dirua, bitxiak eta baliodun

gauzak ohostu dituzte lapurrek.

Hildako bat errekan

Abuztuaren 14ko goizean gizonezko baten gorpua aurkitu zuten Deba ibaian, Agirrebeñak zubi azpian, Labegaraitako bizilagunek. Ertzaitezak eta udaltzaingotik emandako datuen arabera, Lorenzo Urriolabeitia Iurrebaso bilbotarra zen errekan hilik aurkitu zuten 31 urteko gaztearen izena. Gorpua Zumarragako ospitalera eramatu zuten eta bertan egun batzuk izan ondoren, ino-

erreklamatu ez zuenez, Bergarako kanposantuan lurperatu zuten. Udaltzaingotik adierazi dutenez gaztea Araba inguruan bizi ei zen eta Bergarara sarri etortzen zen eskean. Gorpua burua uretan sartuta zeukala aurkitu zuten eta hasiera batean sabelean labankadak zituela zabaldu bazen ere, bortxakeria sintomarik ez zuen.

Ibabe aske

Abuztuaren 14an Iñaki Ibabe presoa Langraitze-ko espetxetik kalera irten zen, estatuko hainbat gartzelatan 17 urte pasa ondoren. Ibaiberi ongi-eto-

rria egin zitzaion Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta eta Langraitzen bertan egindako ekitaldiaren ostean, Bergaran herri bazkaria antolatu zen San Martin plazan, Seminarioko arkupetan. Bazkarian herritar ugarik hartu zuten parte. Ibabe aske laga zuten egunean, herriko hainbat etxetako hormak pintadez josita agertu ziren.

Kotxe zaharren rallyea

Bilboko Hiria Rallyeak Bergaran parada egin zuen abuztuaren 14ko gauerdian inguruan. 30 urte baino gehiagoko kotxeek

herritarren ikusmina sortu zuten eta abuztu erdialdean Bergaran jende asko ez bazegoen ere, San Martin plazara herritar ugari hurbildu zen. Rallyearen lehen jardunaldian Bilbotik Tolosarainoko ibilbidea egin behar zuten pilotuek eta Bergarara 25 bat heldu ziren. Udalgintarietako harrera egin zieten Udaletxean eta Ormazabal hotelean jateko eta edatekoak hartu ondoren, berriz ere bidari ekin zioten.

Lurrikara

Abuztuaren 30ean, zapatu goizaldean, seirak

inguruan, lurrikaratxo batek eragindako zarata ozen batek esnatu zituen hainbat herritar. Batzuk ez ziren enteratu ere egin eta trankil-trankil lo jarraitu zuten, baina esnatu zirenak ustekabe ederra hartu zuten. Ze izango ote zen? Hurrengo egunean komunikabideen bitartez enteratu ziren bi lurrikara izan zirela, ez Los Angeleseko gogor horietakoa, baina nabarmena, Richter eskalan 3,5 gradutakoa. Aspaldian ez da horrelakorik inguruan gertatu eta egun horretan ahoz-ahoz erabili zuten herritarrek. Anekdotak bat besterik ez zen izan.

Inoiz baino kontsulta gehiago (1.560) turismo bulegoan

Turismo bulegoan 1.560 kontsulta jaso dira aurtengo udan, laz baino 305 gehiago. Horietatik 530 kontsulta bergararrek egin dituzte eta gainontzeko 1.030 kanpokoenak izan dira. Turismo bulegoa ekainaren azken astebukaeran zabaldu zen eta joan zen astelehenean, irailaren 1ean, itxi zen. Ekainean 98 kontsulta jaso ziren, uztaillean 664 eta abuztuaren 798. Uztaillean egin ziren 664 kontsultetatik 365 bergararrek izan ziren eta 299 kanpotarrek. Abuztuaren ostera, 798 kontsultetatik 140 bergararrek izan dira eta 658 kanpotarrek. "Aurten uztaila hilabete txarra izan da turismoarentzako, baina ez bakarrik Bergarari dagokionez, Euskal Herri osoan ere horrela izan baita. Abuztua, berriz, oso hilabete ona izan da, kanpotar ugari etorri da, eta hori esker aurreko urteetako bisitarien kopurua gaintu egin dugu aurten" esan digu Xabier Aranburu Udalgintza museologoak.

dira; orain dela hiru urteko udan 1.250 jaso ziren, laz, berriz, 1.255 eta aurten 1.560. Hiru urte hauetako datuak aztertzen baditugu, esan dezakegu bai bergararrek egindako kontsulten kopuruak eta baita

kanpotarrek ere gora egin dutela. Halere, estatuko bisitarien datuak begiratuz gero, urtetik urtera gero eta katalan gehiagok bisitatu du Bergara, baina estatuko beste toki batzuetatik etorritakoak gero eta gutxiago izan dira. Estatuko bisitarien beherakada esplikatzeko arrazoi politikoak aipatu ditu museologoak; katalanen gorakadaren atzean, ostera, Kataluniako hainbat komunikabide idatzitan katalanez egin den publizitatea egon daiteke. Europa eta munduko beste leku batzuetatik etorri direnen kopurua, bestalde, bikoiztu egin da iaztik hona.

Inpresio ona

Turismo bulegotik pasatu diren kanpotarrek, herriaren eta bulegoaren oso inpresio ona jaso dute: "herriko etxeak ondo zainduta daudela, bisitatu gidatuak doan direla, turismo bulegoan tratu ona jaso dutela eta informazio ugari eta toki askotakoa dagoela nabarmendu dute turistek" diosku Xabier Aranburuk. Bestalde, herriaren erdialdean jateko toki on eta merkeak eskatzen dituzte eta aurten Bergaran lo egin dutenak de-xente izan dira.

	1995	1996	1997
BERGARARREN KONTSULTAK	226	283	530
EUSKAL HERRIKOAK	220	244	300
KATALUNIATIK ETORRITAKOAK	262	272	300
MADRILETIK ETORRITAKOAK	106	112	86
ESTATUKO BESTE LEKU BATZUETATIK	296	241	150
EUROPA ETA MUNDUTIK	123	81	152
GUZTIRA	1.006	950	998
BESTE BATZUK *	18	22	42
OSOTARA	1.250	1.255	1.560

(*) Telefonoz egiten diren kontsultak eta beste era batzuetakoak.


ITURRIA: Turismo bulegoa

Gero eta kontsulta gehiago

Turismo Bulegoak 1995ean ireki zituen ateak eta harrezkero Aste Santuan eta udan zabaldu da. Kontsulta gehien aurtengo udan jaso

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Bergarako Udal Euskaltegira!



1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA maila guztiak

Eskaintza bereziak

Guraso eta merkatariei egokitutako taldeak

Erritmoak

2 ordu egunero (iraila-ekaina)

5 ordu egunero (iraila-otsaila) / (otsaila-ekaina)

Astean 2 egunetan 2,5 ordu (iraila-ekaina)

Eskaeren arabera beste erritmo batzuk ere eskain daitezke

Bekatzeko sistema eta diru laguntzak ditugu

16 urtetik gorakoentzat

Bulego ordutegia

Goizez 08.30-12.30 • Arratsaldez 14.30-19.00

Matrikulaldia

Irailaren 1etik 18ra arte

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13

BERGARA

Tel.: 76 44 53



LORAMENDIN

- Adidas
- Nike
- Think Pink
- Reebok
- Rip Curl
- Avia
- etab.

%30

BEHERAPENAK!

ZAPATILAK

%20

San Andres eta Garibai, Arrasaten.

Iñaki Ibabe

“Uste baino hobea izan da itzulera”

Azken 17 urteak Estatu-ko gartzeletan eman ondoren, joan zen abuztuaren 14an aske utzi zuten Iñaki Ibabe preso bergararra. Bere esanetan uste baino hobeto moldatu da eskuratu berri duen askatasunera eta bere jaioterrian ere ez du aldaketa sakonik somatu.

- Zela igaro dituzu 17 urte hauek gartzelan?

- Epe horretan bi epe oso ezberdinak bereiztu behar dira: alde batetik, euskal presoak elkarrekin gineneko garaia eta, bestetik, dispertsioaren ondorengoa. Sakabanaketaren ondoren, gutako bakoitza gartzela batean egon gara eta ez dugu ia harremanik izan. Gartzelako bizitza baldintzak asko aldatu dira bi epe horietan.

- Zelakoa zen gartzelako bizitza?

- Gartzelako ordutegia ezer ez egiteko antolatuta dago. Eguna mila zatitan apurtzen dute eta ez ditzute ezer egiteko aukerarik ematen, gauza bat egiteko beti oztupo bat aurkituko duzu. Jeikitakoan gimnasia apur bat egin, apur bat ikasi, idatzi..., gauza gutxi egiteko aukera dago gartzelan. Ikasketarik? Ni informatikarekin hasi nintzen, baina asig-natura batzuk bakarrik egin ahal izan nituen.

- Zelako tratua jaso



Hamazpi urtez preso egon ondoren, abuztuaren 14an aske utzi zuten Iñaki Ibabe.

duzu bai funtzionarioen eta baita beste presoen aldetik?

- Nahiko ona. Ouren-sen geundenok garai hartan nahiko pakean uzten gintuzten, beraiek ez zuten problemarik nahi eta guk ere ez. Beste presoekin, berriz, harreman normala izan dugu. Baina guk izan dugun giro hori ez da normala. Beste gartzela batzuk nahiko problematikoak izaten dira eta eguneroko dinamika enfrontamenduko dinamika da.

- Zein izan da momenturik gogorrena?

- Batipat lagunak hil direnean, “Krakas” preso lagun bat hil zenean, Mikel Lopetegiren heriotzarekin..., horrelako kasuetan sufritzen da gehien.

- Momenturik goxoenak, berriz, familia-koen eta lagunaren bisitak izango ziren...

- Bai, batipat vis a visak hasi zirenean. Astero izaten nuen bisitaren bat baina barruan ere harreman oso bereziak suertatzen dira. Kontuan izan tentsio momentu larriak bizi direla barruan. Horrek taldea asko elkartzen du eta lagun oso bereziak

egiten dira horrelakoetan. Ez daukate zerikusirik kanpoan, kalean, egindako lagunak eta barruan egindakoak.

- Eta zelan bizi izan dituzu gartzelan gizar-teak urte hauetan jasotako aldaketak?

- Gartzelan jasotzen dugun informazioa askotan lagunengandik jasotzen dugu eta falta da jakitea norainoko aldaketak izan diren, zertan gauzatu diren. Barruan zaudenean informazio ona daukazu baina nahiko murriztua. Dena den, oso diferentea da bisita,

karta edo prentsaren birtartez informazio hori jasotzea edo gertaerak bizibizian ezagutzea, hori da faltan botatzen dena.

- Kolpe handia izan al da normaltasunera itzultzea?

- Ez, neuk ere gogoragoa gertatuko zitzaidala uste nuen. Bigarren egunerako nahiko ondo moldatu nintzen eguneroko martxara eta, oraingoz, ez da espero nuen txoke hori gertatu. Neu ere piskat harrিতa nago neure buruarekin.

- Gartzelatik lehengo irtetzeko aukerarik izan zenuen?

- Ez eta gainera ustedut (abokatuekin hitzegin beharra daukat hortaz) maiatzaren leian betenuela gartzela zigorra. Uste dut hiru hilabetez bahituta egon naizela.

- Gartzelan pasatako urteak galdutako denboratzat jotzen al dituzu?



Itzuli denetik, lřaki lbabek ez du aldaketa sakonik somatu bere jaioterrian.

- Ez, ez. Esperientzia bat izan da, ez dut inolare ere galdutako denboratzat ikusten. Han barruan ezagututako jendeagatik bakarrik merezi izan du. Oso gogorra izan den? Ez, eguneroko bizitzara ohi-

tzen zara. Eguna bukatzen denean egun horren inguruan egondako mila gauza ahaztu egiten dira eta beste egunera pasa, hori da.

- Gartzelan zerekin amesten zenuen? Zer

botatzen zenuen faltan?

- Momentu bat heltzen da gartzelako gauzekin bakarrik egiten duzuna amets. Kaleko gauzak albo batean izoztuta gertatzen dira, plano fijo baten antzera. Noski, gauza batzuk faltan botatzen dituzu, lagunaren besarkadak esate baterako.

- Zer da herrira bueltatzean gehien harrিতu zaituena?

- Oraindik ez dakit, normalegia izan da guztia. Kaleak, etxeak, etabar asko aldatu dira baina jendea berdintsu ikusidut. Bueno, batzuk ez-kondukta, seme-alabekin eta hori guztia baina segituan ohitu naiz, uste baino askoz azkarrago.

- Gartzelan zenuen ikuspegia zerbaitetan aldatu al da kalera irtetzean?

- Barruan egindako analisiak nahiko ondo eginda daudela konturatu naiz kalera irtetzean. Nahiz eta teorian analisi horiek egiteko parametro batzuk faltan izan, neukan ideia errealitatera as-

“Gartzelan igarotako urteak ez ditut galdutako denboratzat jotzen, han barruan ezagututako jendeagatik bakarrik merezi izan du”



Argazkian, lřakiri abuztian egin zitzaion ongi-etorriko irudi bat.

“Momentu bat heltzen da gartzelako gauzeekin bakarrik amesten duzula, kaleko gauzak izoztuta, plano fijo baten antzera geratzen dira”

ko hurbiltzen da.

- **Badirudi Miguel Angel Blancoren hilketak ETaren barruan ere eztabaida haundia ekarri zuela. Zer deritzozu?**

- Ez, hori Atutxak eta bere ingurukoek ikusi dute. Eta egin duten manipulazioa lotsagarria izan da, Soares Gamboarena adibidez. Soares Gamboak kobratu egiten du egiten duenagatik eta Latasaren kasua ere berdina da. Permisioak edo hirugarren gradua lortzeko telebistan irtetzeko presionatzen dituzte baina damutuen talde guztia ez da pasatu txantxa horretatik.

- **Hilketa hori eta Ortega Lararen askapena ia batera izan ziren eta gizartearen erantzuna sekula baino ozenagoa izan da ETaren aurka. Zein balorazio egingo zenuke?**

- Analizatu ez dena ere analizatu behar da. EL PAISEk, egun batzuk lehenago, EAJri zuzendutako dokumentu bat kalera-tu zuen, esanaz edo gurekin zatozte edo zuekin zerikusia duen beste dokumentu bat plazaratuko dugu. EAJ automatikoki ildo horretan sartzen da,

komunikazio medio guztiak erabiliz. Bestalde, kazetarien jokaera ere lotsagarria izan zen. Sentsazionalismo merkea egon da. Kazetariak Estatutik bizi dira, egunkariak ez direlako gauza euren kabuz bizitzeko; EL MUNDO PPrekin, EL PAIS PSOErekin... Kontu honetan oso garrantzitsua da EL PAISEk ateratako oharra. EAJk esan beharko du zein nota den hori eta ea dokumentu horrek Santi Brouarden hilketa-rekin zerikusirik duen.

Gizarteak automaten erara funtzionatu zuen komunikabideek bultzaturik eta benetan muntaia lotsagarria izan zen. Ermua jendez gainezka zegoen, bai. Uste dut Francok bokadiloak ematen

zituela..., ez dakit EAJ horraino helduko zen.

- **Ordutik Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordearen lana eten egin da...**

- Giza Eskubideen Batzordeak ez du ezertarako balio. Arzalluzek eta PSOEk Francok hasitako bidea jarraitu zuten dis-pertsioarekin eta orain Arzalluz hasten da esaten beraiek ez dutela zerikusirik horretan. Batzordea-rena rolo folkloriko bat da dispertsiotik desmar-katzeko.

- **Zein da Euskal Herriak bizi duen gatazka egoeraren soluzioa?**

- 78an sartu nintzenean banekien negoziazioa zela eta ordutik hona ez da ezer aldatu. 79an boterean zeudenak Francok

utzitakoak ziren, UCD eta bere aldeko guztiak. Gaur egun begira zeintzuk dauden. Daudenak... zirenak. GALEko historia guztia azaldu da ordutik. 84an guztiok genekien GALEn atzean nor zegoen. Beraz, edo periodista guztiak tontoak dira (erdia multzo horretan sar daiteke) edo interes ekonomiko batzuren atzetik daude. Gerta liteke lau urte barru Triple A, Bataillon Vasco-español eta guzti horien kontuak zabaltzea. Ikusi egin behar...

- **Bukatzeko, etorkizunera begira zein asmo daukazu?**

- Momentuz ea Etxaniz irtetzen den, dagoeneko kalean egon behar zen eta. Plataforma bat eratzeko asmoa daukagu Jose Mariren askatasuna eskatzeko. Eta ea San Martin ostean estabilizatzen naizen eta pendiente dauzkadan lan batzuk egiten ditudan.

Bazkide beteranoa

Iñaki Ibabe 1980ko otsailaren 19an atxilotu zuten, ETaren kolaboratzaile izatearen akusaziopean. Epaiketa handik urtebetera izan zen Madrilan eta Ibabek 32 urteko gartzela zigorra jaso zuen (oraindik gartzelan dagoen Etxanizi 34 urteko zigorra ezarri zioten). Iñaki Ibabek 20 urte zituen orduan eta azkenengo 17 urteak, Carabanchel, Soria, Puerto de Santamaria, Herrera, Alcalá, Ourense

edo Langraitzeko espetxeetan eman ditu. Atxilotu zutenean poliziak erretentutako materialaren artean, denbora guzti honetan sobre bat ibili da Ibabek Estatuko gartzeletan zehar egindako ibilbidea jarraitzen. Zer edukiko sobre misterioso horrek? Azkenik, abuztuaren 14an libre laga zutenean zabaldu ahal izan zuen Iñakik sobrea eta horra hor non agertzen den Juventudeseko bazkide txartela. Duda barik, gaur egun ezin izango dio probetxurik atera karnetari...

Ainhoa Agirreazaldegia, Euzkitze, Mañukorta, M.A. Peñagarikano eta Sarasua
TRIKITILARIAK,; Landa aita-semeak • BERTSO KLOWNAK: Oihulari Klown

Bertso Jaialdirako sarrerak ohizko tokietan salgai

Larunbata, hilak 13 • Gaueko 10:30etan • Novedadesen • Antolatzailea: JARDUN

Zer egin duzu abuztuko oporretan?




Julia Flores

Nafarroan egon naiz, oso gustora gainera. Poltsikorako nolako oporrak izan diren? Ez dugu diru gehiegi gastatu.



Ana Haro

Ezin izan dut kanpora joan erreabilitazioa egin behar izn dudalako, sorbalda gaizki daukat eta. Baina egin ditugu irteera batzuk inguruan zehar.



Segundo Jimenez

Denetik. Saloun 15 egunetan egon gara eta gero Bergaran. Ekaitz batzuk tokatu zaizkigu parean baina gustora... Diru aldetik? Oporretan beti gastatzen da.



Iosu Etxabe

Costa Rican egon naiz eta primeran, oso leku politak ikusi ditugu han. Bigarren hamabostaldia Zumaian igaro dut. Oporretan asko gastatzen da bai. Orain lanera...



Karmelo Santorcuato

Oporrak herrian igaro ditugu, herria norbaitek zaindu behar... Urtean zehar egiten dugu emazteak eta biok irteeraren bat. Jende gutxi geratu da baina gustora ibili gara.



Maria Josefa Urriategi

Bergaran igaro ditut, etxean trankil trankil. Denda daukagu eta lan piskat ere egin behar izan dugu. Irailean irtengo gara. Orain ere egin ditugu irteera batzuk.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
 Bidekurutzeta, 24 BERGARA
 ☎ 76 13 35

PINTXO eta BOKADILOAK
 SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
 Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

MAHER
Biltegiak L.E.
 Oihal etxea
 Bidekurutzeta, 29
 ☎ 76 22 90 - 76 26 75

IKUSBI
 ALKANDORAK,
 JERTSEAK, BAKEROAK
 ETA OSAGARRIAK
 Irala, 5 ☎ 76 53 09

Biko
 BOKATEGIA
 Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tl. 76 71 19

Deco-Textil
ZANGITU
 Etxerako lentzeria
 Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
 Bisiloak, tapizak, etab.
 Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



Marx eta prentsa horia

Betidanik fribolitate eta prentsa sentsazionalistarekin erlazionatutako pertsonaia baten heriotzak mundu guztiko hedabideen atentzioa bereganatu du azken egunotan. Istripuari esker diru-sarrerak handitzea lortu duten aldizkari, egunkari, telebista kate eta irrati emandegiak zenbaezinak direnik inork ezin du ukatu, baina zoritzarreko askok bezala, honek ere izan du bere alde ona; guztioi luzatutako erreflexiorako gonbitea, hain zuzen ere.

Carl Marxek esan omen zuen, jabeak neurrigabe aberastu eta langileria etengabe pobretzearen arrazoia, lanekua merkantzia bihurtu izana zela. Ba, informazioarekin (larrosarekin batipat) egun, antzeko zerbait gertatu dela esatera ausartzen naiz. Kontsumo gai bihurtu zaizkigu albisteak, salerosketara espreski bideraturiko ekoizpenak izatera iritsiz. Kazetarien lana eskari-eskaintzaren erregelek menderatzen dute, masaren desira ezkutu-en esklabu bihurtuz. Gauzak horrela, ekonomiak gidatutako negozio honetan, ez da moralitate eta etika kodeetarako lekurik gelditzen.

Baina dirudienez, iritzi publikoak ez du oraindik onartu kazeritzaaren elementu haserrearen pisua bizkar gainean eramatea, baina ahopekoen munduan guztiok gara errudun: irakurle, idazle, saltzaile eta nola ez, irudiarekin trafikatzeko duten sasi ospetsu guzti horiek. Ea noiz tokatzen zaien beraiei aurpegia ematea.

Maria URZELAI



Itxita oporregatik

Hemen gara berriz bueltan. Iraila iritsi eta jende guztia mar txan dago berriz udako geldialdiaren ondoren; lantegiak ikaste-txeek, dendek eta administrazioak beren lanari ekin diote 21 egun lozorroan igaro ondoren.

Beste lurralde eta kultura batzuk ezagututa bat konturatzen da guretzat "konkista sakratuak", ezinbestekoak, direnetako batzuek ez dutela izaera bera munduaren beste punta batzuetan eta bigarren mailakotzat jotzen direla. Eta hau esaten dut, Errepublikan Dominikarreen, hau idazten ari naizen tokian, abuztua ez delako "oporren hilabetea", ez behintzat bertakoentzat eta bertan lan egiten dugunontzat.

Beti udan bizi den Karibeko lurralde honetan langileek 15 opor-egun dituzte urtean eta horiek urte osoan zehar hartzen dira. Hori dela eta, irla honetan gauza guztiek erritmo normalean funtzionatu zuten joan den hilean eta tramiteren bat egin nahi zuten inork ez zuen "opor osterarte itxoin beharko duzu" edo horrelakorik entzun behar izan.

Lan-jarduna murrizteaz eta lana banatzeaz hainbeste hitz egiten den garai hauetan pentsatzekoa litzateke, era berean, gure parajeetan ere abuztua iristen den aldiro "oporregatik itxita" kartela jarri beharrean atsedendaldirako egun horiek urtean zehar hartzea eta hala produkzio sistema guztiak erabat gelditu beharrik ez izatea. Era horretan, produkzioa gelditu eta berriz mar txan jartzeak sortzen duen kostu ekonomiko handia ebitatuko litzateke eta jende gazteak urtean zehar sortuko liratekeen lanpostu hutsetan lan egin ahal izango luke eta ez, orain bezala, udan bakarrik. Gainera, oporrak ulertzeko modu hau ez da berria gure herrian.

Bere oporrei buruz galdera egin zioten bertsolari batek esaten zuen bezala: "gure baserri zaharrea ez dago oporrik". Denetara ohitzen da bat, baita bero galdatan lan egitera ere.

German LARRAÑAGA

97-98 IKASTURTEA MATRIKULA ZABALIK

INGELES

- Ingeles orokorra, maila guztiak.
- 4-6 urtekoentzako hasierako taldeak, asteen bi ordu. Eguerdian zein arratsaldean.
- Cambridge-ko azterketetarako prestakuntza taldeak, gazteentzat. Arratsaldeko 4retan eta 6:30etan.
- Enpresentzako klaseak: ingeles tekniko eta komertziala.
- Banakako klaseak.

ALEMANA

- Aleman klaseak, maila guztiak: ume, heldu zein enpresentzakoak
- Goethe Institut-eko azterketetarako prestaketa.

LA PUERTA AL



INFORMAZIOA: Burdiñate, 5 Bergara Tf. 76 30 01

■ Iker Zabala gogoan

Joan zen urteko irailaren 24an hil zen **Iker Zabala gaztearen lagunek bere omenezko eskultura** bat jarri zuten uztailean **Araotzen**, San Elias ermitaren azpian. Aipatutako **eskultura Juan Balentziaga bergararrak** egindakoa da. Harria Arantzazutik ekarri zen eta Balentziagak lau bat egun eman zituen lanean Araotzen. Iker mendizale amorratua genuen eta eskalatzeko gustoko zuen tokian jarri dute eskultura bere lagunek. Era berean, datozen egunetan Ikerren omenezko mendi irteera bat antolatuko dute. Argazkian Ikerren kuadrila eta Juan Balentziaga jarritako eskulturaren ondoan.



■ Urrezko eztalak

Gorlako bazkideek elkartearen sorreraren **urrezko eztaiak** ospatzeko bazkaria egin zuten joan zen **uztailaren 20an**. Gorla mendi elkarteak 1947ko abuztuaren 3an sortu zen baina zuzendaritza batzordeak oporrak zirela eta ospakizunak

zertxobait aurreratzea erabaki zuen. Bezperan mendi irteera egin ondoren, uztailaren 20an Elosun meza izan zen eta jarraian 40 bat lagunek bazkaria egin zuten Gorlan bertan. Ramon Amasorrainek utzitako argazkian (elkartean ikusgai daude argazkiak), bazkarian bildutako bazkide taldea elkartearen aurrean. Bestalde, ospakizunekin jarraituz, **aurtengo San Martinetako tanborradan Gorlako martxa** joko da aurreneko aldiz.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, unxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi ☎ 76 15 09

Maxim's
 ☎ 76 20 61

KONDE

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57


■ **Orkestakoak Italian**

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoko kideek Italiara bidaiaren zuten abuztuaren 3tik 14ra bitartean. Orkestak bere **10. urteurrena** ospatzeko egindako bidaiaren honetan 49 lagunek hartu zuten parte eta, besteak beste, Niza, Pisa, Florencia, Erroma eta Venecia bisitatu zituzten. Orkestakoei asko gustatu zaizkie ikusitako



lekuak eta Italiara berriz bueltatzearekin ametsetan dira jadanik. Ea hurrengo batean Milango Scala ospetsuan emanaldi bat eskaintzera gonbidatzen dituzten...

Zertan dihardute ba?



Dani Laskurain bergarar margolariak San Joxepe jubilatuen elkarteak urriaren antolatuko duen Kultur hamabostaldia iragartzeko deitutako kartel lehiaketa irabazi du. Lehiaketara zazpi lan aurkeztu ziren eta Laskurainek eraman zuen lehen saria (75.000 pezeta). Landu beharreko gaia "Erretiratuta egotei gizaratean parte hartzerari izenburukoa zen. Daniren hitzetan, "kolore biziak eta jaietako programaren erabilitakoaren antzeko teknika erabili nuen, kartela zati ezberdinetan banatuz eta sukaldaritzan, irakurketa, pintura edo dantzak isladatuz".

Marzo 4 de 1997 de 1997 El Correo Gallego

UNA PEREGRINACIÓN MUY SINGULAR

Un emigrante cumple la promesa de volver a su tierra en bici tras 15 años en Zurich

Muchos agradecimientos, y algunas críticas serias



■ **Santiagoraino bizikletaz**

Jose eta Ibon Arrieta aita-emeak Santiagoko ibilbidea bizikletaz egin zuten abuztuaren 11tik 18ra bitartean.

Orreagatik abiatu ondoren, Atarrabian (Indurainen jaioterrian) ere paradatxo bat egin zuten Indurainen peñaren seilua jasotzeko. Era berean, bidean hainbat lagun egin zituzten, tartean Zurichen hainbat urtetan lanean izan ondoren bere herrira bueltan zen **Jose Bono** izeneko galegoa. Bidean zehar zenbait bider elkarrekin topo egin ondoren, ibilbidea batera jarraitzea erabaki zuten eta Galiziako "El Correo Gallego" egunkarian Bonoren ibilbidearen berri eman zutenean, honek Arrieta aita-emearen laguntza eskertu zuen. Erromes finak hauek...

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 76 60 39 ☎ 76 19 98

ZUBIETA

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC


PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
 konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Daniel Santos

Kazetaritza ikasketak burutu zituen bergarar honek, bigarren urtez jarraian, sokorrista lanak bete ditu udan igerilekuetan. Argazkizale amorratua, bere lan bat aukeratua izan da Caja Vital Kutzaren 1998ko egutegirako.



“Uda nahiko lasaia izan dugu aurten piszinetan, nahiz eta jende asko ibili den. Plaian behin bakarrik izan naiz aurten. Argazkiak udazkenean ateratzea gustatzen zait”

- Uda lasaia aurtengoa?
- Nahiko lasaia, bai.
- Egunean zenbat denbora uretan?
- Ahal nuenean ordu erdi bat.
- Egun eguzkitsuak ala lainotsuak nahiago?
- Eguzkitsuak.
- Piszinetan, jende gehien noiz?
- Astebukaeretan. Abuztuan ere bestetan baino jende gehiago.
- Piszinetako lanik gorrotagarriena?
- Jendeari batzutan atentzioa eman behar izatea.
- Eta atseginena?
- Sendaketa lanak, pikatadak eta ebakiengatik batez ere.
- Nortzuk ematen dute lan gehien, gaztetxoek ala helduek?
- Gaztetxoek!!
- Nola igarotzen dituzu laneko ordu hilak?
- Lankideekin eta jendearekin berba eginez.
- Zenbat liburu irakurri dituzu

udan?

- Hamar bat liburu.
- **Gomendatu bat.**
- *El hombre solo* (Atxaga).
- **Puntuatu Bergarako igerilekuak.**
- Otik 10era 8 bat.
- **Zertan hobetu daitezke?**
- Ondo daude.
- **Piszinak udan ala neguan?**
- Neguan nahiago.
- **Plaian izan zara aurten?**
- Behin bakarrik.
- **Eta kostaldeko jaietan?**
- Ez, formal ibili naiz.
- **Sukaldari ona zara?**
- Hori esaten dute...
- **Janari bat?**
- Paella. Orain janari mexikarrarekin probak egiten ari naiz.
- **Hobby bat?**
- Argazkilaritza.
- **Argazkiak ateratzeko sasoirik onena?**
- Udazkena.
- **Zuribeltzean ala koloretan?**
- Zuribeltzean.
- **Paisaiak ala erretratuak?**
- Paisaiak.
- **Argazkilari bat?**
- James Natchwey, Magnum ajentziakoa.
- **Nola enteratu zinen Lady Diren istripuaz?**
- Irratiz.
- **Istripuaren ondorengo argazkiak publikatuko zenituzke?**
- Ez.



**IRAKASLE ESKOLA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA**

MAGISTERITZA

IRAKASLE ESKOLAk zera jakinarazten du:
1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela honako espezialitateetan:


- ... HAUR HEZKUNTZA
- ... ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

AURREINSKRIPZIO-EPEA: IRAILAREN 8TIK 12RA

INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA
Tf. 71 41 57
20.540 Eskoriatza

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

Pisu amueblatua salgai. Bi gela, sala eta trasteroa. ☎ 76 49 30 (gauetz).

Pisua eta garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

Pisua salgai Masterrekan. ☎ 76 08 67.

Garajea alokairuan Ibargarain. ☎ 76 16 38.

Garajea salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

1997-98 kurtsorako pisua behar da. ☎ 76 03 53.

Pisua salgai Masterrekan. Berriztua. ☎ 76 08 67.

Garajea saldu edo alokatzten da Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

Pisu txiki bat, apartamentua edo ganbara alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 04 57.

Garajea alokairuan Mabiategin. ☎ 76 16 38.

Pisua alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

Pisu bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 59 54.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauetz).

Garaje bikoitza alokairuan Ibargarain. ☎ 76 57 69.

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 50 97 (gauetz).

DENETARIK

Vitus bizikleta salgai. ☎ 76 08 21.

Ford Orion kotxea (1.6 D) salgai. ☎ 76 71 12.

Bi lagun behar dira Gasteizen pisua osatzeko. ☎ 76 28 17.

Gasteizen pisua osatzeko bi neska behar dira. ☎ 76 47 70 (Onintza).

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Yamaha Virago 1100 motorra salgai. 4.000 kilometro. ☎ 76 57 69.

Kawasaki GPZ motorra (400 cc.) salgai. Kilometro gutxiarekin. ☎ 76 08 97.

Katukumak salgai. ☎ 76 70 90.

Kotxeko irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauetz).

Windsurf egiteko taula (3,5 metro) salgai. ☎ 76 47 71.

Yamaha Diversion motorra salgai. ☎ 76 36 03 (iloseba).

Peugeot Scooter motorra salgai. ☎ 76 41 65/46 18.

Renault 21 kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 29 98.

LANA

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska bat behar da etxeko lanak egin eta heldu bat zaintzeko. ☎ 76 61 85.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 20 04.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

UBIko marrazki teknikoko maisua behar da. ☎ 76 51 67.

Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 76 09 24.

Klase partikularrak udan. ☎ 76 30 35 (Unai).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 13 46.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

Tabernaria behar da. ☎ 76 23 71.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 907 92 35 63.

Sukaldari laguntzailea eskeintzen da. Esperientziarekin. ☎ 76 00 90 (Oriando).

Pertsona edadetu bat zainduko lukeen emakume bat behar da. ☎ 76 17 77 (Marixabel).

Jatetxe edo gozotegi batean lan egingo nuke. ☎ 76 19 64 (Isidro Jabier).

Neska eskeintzen da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. ☎ 75 17 43 (Rakel).

Neska bat behar da emakume edadetu bat zaintzeko (hogeitalau orduz). ☎ 76 00 85/76 38 31.

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78

**FRANTSES IRAKASKUNTZA**

97-98
ikasturtea

Izena emateko epea:
irailaren 30era arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi, 3 1. ezkerre. Bergara.

Tf. 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



BONOFOTOA



Ane Zangitu

Ane Zangituk jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, azkenengo Bonofotoan egindako galderak berak asmatu dituelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen elkartearen izena eta inaugurazio eguna galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Gorla** eta **1947ko abuztuaren 3a** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Ane Zangituri** eman dizkiogu. Zorionak!!

Bergarako Sagar-Pe elkartearen dagoen Migel Okinaren koadro hau 1953koa da. Badakizu ordutik hona udaletxean izan diren, gutxienez, bost alkateren izenak?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



BKEko futbol taldea nagusiaren aurkezpena gaur egingo da

BKEko futbol talde nagusiak Bergara Hiria torneo irabazi zuen Oñatiko Aloña Mendiren kontra finalean penaltietan irabazi ondoren. Arauzko 90 minutuak binako berdinketarekin amaitu ziren eta irabazle erabakitze talde bakoitzak 10 penalti jaurti behar izan zituen. Final erdian BKEkoek sekulako jipoia eman zieten antzularrei 11 eta 0 irabazi baitzieten. Beste final erdian Aloña Mendik Arrasateri irabazi zion. Gaur, eguakitzan, arratsaldeko 7:30etan BKEko talde nagusiak aurkezpen ofiziala egingo du eta datorren domekan hasiko dute denboraldia.

Aitor Zabaleta lidergoan


Aitor Zabaleta kotxe pilotuak abuztuan Santanderren dagoen Ampuroko "La bien aparecida" kotxeentzako mendi igoera irabazi zuen. Garaipen horrekin Espainiako mendi igoeren txapelketa ia poltsikoan du. Izan ere, txapelketa bukatzeko 3 lasterketa (Fito, Castellon eta Ibiza) falta dira bakarrik eta lasterketa batean bi lehenengoen artean bukatzen badu txapelketa geratuko litzateke.



Berriz ere Espainiako txapelketa geratzeko aukera dauka Aitor Zabaletak

Zoru berria futbito kantxan

Futbitoan eta tenisean jokatzeko erabiltzen den Labegaraietako kanpoaldeko pista konpondu zuten uztaileko azken egunetan. Iazko udan ere konpondu zuten baina euria egiten zuenean zorua oso labankor eta arriskutsua geratzen zen da eta ondorioz, futbito txapelketako partiduak ezin ziren jokatu. Zoruari 3 kapa berri bota diote eta lan horrekin euria egiten duenean ez labantzea espero dute Kirol Zerbitzuko arduradunek. Halere, obra egin eta handik gutxira, pistaren zoruan bizikleten erroberen markak eta pedalekin egindako zuloak agertu dira. Hori ikusirik, Kirol Zerbitzuko arduradunek pista zaintzea eskatu diete Labegaraietako kirol instalakuntzak erabiltzen dituztenei.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



Kirol eskaintza zabala

Udal Kirol Zerbitzuak hainbat kirol ikastaro eskaintzen du

Udal Kirol Zerbitzuak aurtengo denboraldiko kirol eskaintza kaleratu du.

Joan zen urteko eskaintzarekin alderatuz jubilatuentzako igeri ikastaro bereziak eta gazteenzako multikirola deituriko programa dira berrikuntzarik nagusienak. Izan ere astelehen eta asteazkenetan jubilatuentzako igeri ikastaroak antolatu dituzte.

Jubilatuez gain 3 urtez gorakoentzako hainbat ikastaro daude antolatuta adinaren eta igeriketa mailaren arabera. Multikirol programa 15 urtetik gorakoentzat izango da eta iharduera horretan arituko direnek egin nahi duten kirola aukeratu ahal izango dute. *"Multikirola kirolari gazteenzatzat pentsatu dugu eta osatzen den taldeak, monitorearekin batera, dauden aukeren arabera nahi duen kirola egin ahal izango du. Ikastaroa Miguel Altuna institutoan izango da astearte eta ostegunetan"* adierazi digu Iñaki Ugarteburu Udaleko kirol teknikariak. Aerobic ikastaroetan gehinez 22 lagun eta gutxienez 12 onartzen dira.

Udaleko Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen ikastaroen artean arrakastarik haundiena duena aerobic ikastaroa da.



Mantenimendu gimnasia, berriz, gutxienez 10 lagun eta gehinez 25 behar dira. Parte hartzeko bazkideek 1.700 pezeta ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 2.500 pezeta.

Aerobica ikastaro arrakastatsuen

Beste urte batzutan bezela aerobica da ikastaroen artean arrakasta handiena izan duen ekintza. Izan ere joan zen astelehenean matrikulaketa epea zabaldu eta egun berean 100 lagun inguru apuntatu ziren. Aerobic klaseei dagokienez berrikuntzarik nagusia 15:30e-

tatik 16:30etarako klasea igerilekuetan izango dela da. Mantenimendu gimnasia, berriz, ez da horrenbeste jende apuntatu, baina ekitaldi horietan parte hartu nahi dutenek lehen bait lehen eman beharko dute izena. *"Batez ere emakumezkoak dira aerobic ikastaroan apuntatu direnak, baina badira gizonezkoak ere. Mantenimendu gimnasia gizonzkoak ere apuntatu dira, baina hor ere emakumezkoak dira nagusi"* esan digu Ugarteburuk. Aerobicak eta mantenimendu gimnasiak 3.000 PTako matrikula dute eta ikasturtea bukatzen dutenei matrikula itzuliko zaie.

Aurretik aipatutako iharduereaz gain, tenis eta iharduera fisiko egokituko ikastaroak ere badira. Tenisa astearte eta ostegunetan izango da 19:15etatik 21:15etara eta gehinez 10 lagun eta gutxienez 5 lagun beharko dira.

Iharduera fisiko egokitua, berriz, elbarrituentzako egokitua da eta institutoko gimnasioan emango da. Ikastaroa astearte eta ostegunetan 18:00etatik 19:00etara izango da eta hiru hilabetero 6.900 pezeta ordaindu beharko dira. Halaber, elbarrituentzatzat dituzten oztopoak arabera igeri ikastaroak berdinak daude antolatuta.

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktoarea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

PANA DE ROKUA
TATETXEAL

Kontxi Idigoras

Asteburuetan bertako babak eta sablesak

SALBADOR, 10 ELGETA TLF. 76 82 73

TXINPARTAK

Futbito txapelketa

Labegarietako futbito txapelketarako izena emateko epea datorren astelehenean, hilak 8, bukatuko da. Izena ematerakoan taldearen zerrenda jokalaria bakoitzaren NANarekin, ordezkariaren izena eta telefono zenbakia jarri beharko dira. Bestalde, 19.000 pezeta ordaindu beharko dira Euskadiko Kutxako (0090033922-2) zerbakiari, Lagunak elkartearen izenean. Ordain agiria taldearen beste datu guztiak batera, Labegarieta edo Deportivo tabernan aurkeztu beharko dira astelehena baino lehen. Antolatzaileek izena ematen duten 48 lehenengo taldeak onartuko dituztela adierazi dute. Halaber, asteartean Kultur Etxean arratsaldeko 7etan bilera egingo da txapelketaren berri emateko. Asmoa hiru multzo osatzea da: lehenengoan iaz lehen mailan amaitu zutenek jokatuko lukete.

Finalista eguna

Antzuolako Arrola mendi elkarteak antolatuta, Haurren Finalista Eguna ospatuko da domekan Trekutzen. 11:00etan salda eta txorizoa banatuko dira eta eguerdiko ordubietan bazkaria izango da. 16:00etan ume jolasak izango dira eta ondoren erromeria trikitilariekin.

Amaia Samaniego

Eskubaloian goi mailan

Amaia Samaniego eskubaloia jokalaririk gazteak Donostiako Corteblando Bidebieta eskubaloia taldeko lehenengo taldean jokatuko du aurtengo denboraldian. Uztailean besotik operatu zuten eta ezin izan du aurrendenboraldia osorik bukatu. Halere denboraldia hasteko prest egotea espero du.

- Joan zen urtean joan zinen Donostiara eta zer moduz joan zaizu urtea?

- Oso ondo. Jubenil taldean jokatu nuen eta Euskadiko liga eta kopa irabazi genituen. Espainiako txapelketan, berriz, irabazlearen aurka Santanderren aurka kanporatuak izan ginen.

- Noiz hasi zenuten aurre denboraldia?

- Ekainean hasi ginen entrenatzen eta uztailean besotik operatu ninduten. Izan ere tendinitis antzerako bat neukan eta hori sendatzeko operatu ninduten. Horregatik aurrendenboraldiko partidu asko galdu ditut, baina liga hasteko jokatze prest egotea espero dut. Orain pesak egiten ditut, batez ere, baloia ezin dut jaurti eta. Egun hauetan taldea Dinamarca eta Noruegan ari da torneo batzuk jokatzen eta pena bat izan da ez joatea.

- Desberdintasun handia izango da talde nagusiarekin entrenatzea, ezta?

- Bai, jubenetan jokatze orduan askatasun gehiago neukan eta orain

lotuago gaude. Halere oso pozik nago asko ikasten delako. Taldea oso indartsua da eta bertako jokalariez gain, bi daniar, austriar bat eta errumaniar bat daude taldean eta horiekin asko ikasten da.

- Jokatze oztopo handiak izango dituzu?

- Bai, konpetentzia handia daukat eta hasieran bigarren taldean jokatzen hasiko naizela uste dut. Denboraldian zehar lehen taldearekin jokatze aukerak izango ditudala uste dut.


- Taldea Europan jokatze sailkatu da eta

Europan jokatze gogo izango duzu?

- Noski, oraindik lesioagatik ezin izan naiz taldearekin kanpora joan, baina gogo handia daukat kanpoan jokatze.

- Etxetik kanpo urtebete daramazu Donostian. Zer moduzko esperientzia izan da?

- Oso ona, lagunekin ondo konpondu naiz. Orain pisuan jokalaririk Austriararekin gaude eta beste batzuk nola bizi diren ikusteko ondo etorri zait. Ohitura ezberdinak ditu eta elkar ulertzeko ere nahiko arazo izan ditugu.



Emakumezkoen eskubaloian goreneko mailan ari da Amaia.

“Bidebietan jokatze konpetentzia oso haundia izango dut”



Argazkia: Marisabel Garcia

Pol-Poleko irteera Igaratzara. 1950

Abuztuko oporrak amaitu badira ere, egunotan hondartzara zein mendira joateko eguraldi zoragarriak izaten jarraitzen dugu. Oporretan badira mendia eta hondartza tartekatzen dituztenak eta baita bata edo bestearen defendatzaile sutsuak direnak ere. Argazkian agertzen direnak garai bateko mendizale amorratuak genituen eta Euskal Herriko tontor gehienak zapaltzera iritsiko ziren.

Goiko argazkia Aralarren, Igaratzan aterata dago eta 1950 urtekoa da. Pol-Pol Mendizale Taldearen inguruan herriko mendizaleak biltzen ziren ordurako eta gaur egunean bezala sarritan mendi irteerak antolatzen ziren, domekero ia. Ez dakigu zenbatek hartuko zuten parte egun hartako irteeran baina kamara aurrean jarri zirenak hauek dituzue, ezkerretik eskumara:

Goian: Iñaki Osinaga, Paulino Ena eta Honorio Agirregabiria.

Behean: Ramon Arrese "Kapaña" eta Agustin Bengoa "Agarre".

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ

Pintxo bereziak, kazuelitak, bokadiloak, plater konbinatuak...
edota kopatxo bat lagun artean hartu nahi baduzu, zatoz **Kayak** tabernara.
Berriz zabaldu dugu **Matxiategi 3** behean.

Telefonoz ere hartuko dizugu enkargua. Tf. 76 70 11



JABE BERRIAK

KAYAK

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

Izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin

 **ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A


Artekalea, 22 BERGARA / Tf. 76 16 63

Santa Ana ELGOIBAR / Tf. 74 10 11

GIARTZU GIMNASIOA

Ariketa kardiobaskularren gela

Korrika gogoz egiteko



Arraunean egitera!

Spinning bike

Pedalei topera ematen

Eskailera mekanikoa



Gogotik botako duzu izerdial

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTRATZUNA
07:30 M ^a Carmen	STEPa ABDOMINALAK	AEROBICa IPURMASAILAK ABDOMINALAK	STEPa TONIFIKAZIOA Lukatze ariketak	CARDIO TRAININGa	AEROBICa STEPa SALTOA
08:15 M ^a Carmen	STEPa ABDOMINALAK	AEROBICa IPURMASAILAK ABDOMINALAK	STEPa TONIFIKAZIOA Lukatze ariketak	CARDIO TRAININGa	AEROBICa STEPa SALTOA
09:00 M ^a Carmen	STEPa ABDOMINALAK	AEROBICa IPURMASAILAK ABDOMINALAK	STEPa TONIFIKAZIOA Lukatze ariketak	CARDIO TRAININGa	AEROBICa STEPa SALTOA
10:00	JUBILATUAK	JUBILATUAK		JUBILATUAK	
11:00 Ana	STEPa ABDOMINALAK	AEROBICa IPURMASAILAK ABDOMINALAK	STEPa TONIFIKAZIOA Lukatze ariketak	CARDIO TRAININGa	AEROBICa STEPa SALTOA
15:00 Gema	STEPa ABDOMINALAK LUNBARRAK		AEROBICa IPURMASAILAK Lukatze ariketak		STEPa ABDOMINALAK LUNBARRAK
17:00 Belen	STEPa IPURMASAILAK ABDOMINALAK	AEROBICa PEKTORALAK ABDOMINALAK	STEPa TONIFIKAZIOA Lukatze ariketak	CARDIO TRAININGa	SALTOA IPURMASAILAK ABDOMINALAK
18:00 Inaki/Luis	KARATEA	STEPa ABDOMINALAK LUNBARRAK (Gema)	KARATEA	AEROBICa IPURMASAILAK HANKAK (Gema)	KARATEA
19:00 Belen	STEPa IPURMASAILAK LUNBARRAK	AEROBICa PEKTORALAK ABDOMINALAK	STEPa TONIFIKAZIOA Lukatze ariketak	CARDIO TRAININGa	SALTOA IPURMASAILAK ABDOMINALAK
20:30 Gema	STEPa IPURMASAILAK ABDOMINALAK	TONIFIKAZIOA PEKTORALAK IPURMASAILAK	AEROBICa ABDOMINALAK LUNBARRAK	TONIFIKAZIOA HANKAK	CARDIO STEPa ABDOMINALAK LUNBARRAK

Giartzu gimnasioa Tf. 76 35 71